



Mazarredo zumarkalean, Guggenheim museoari so, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren (EHAEO) egoitza bizkaitarra dago, nahiz eta, orain arte, munduak bere berri jaso ez. Bertaratu behar den horri, "kobazulo", "harresi", "gotorleku", "muru" eta antzeko hitzak datozkio burura, batetik egoitzaren trinkotasuna eta kanpoarekiko duen erlazio hutsagatik, bestetik arkitektoaren irudia sozialki izan duen iragazkortasunik ezagatik.

Gako-hitzak:
Arkitekto Elkargoa. Zaharberritzea





MATERIALEEN LEGENDA

ALTZARI ESKAPARATEA

m.1 egur kontraxapatuzko ohala

m.2 egiturako silikona

m.3 neoprenozko junta

m.4 altzairu erdalgaitzezko pieza

m.5 kurlina tolesgarria

m.6 segurtasune beltza 6+6 mm

m.7 altzairu erdalgaitzezko pieza

m.8 altzairuzko perfila 140x100x6mm

m.9 beirazko lama mogikorak

m.10 aireztatzen sarea

m.11 altzairuzko pieza

m.12 loturak

m.13 kablearentzako pasabidea

FATXADA

f.1 gaur egungo harritzko aplakatua

f.2 gaur egungo lotura

f.3 gaur egungo isolamendua

f.4 gaur egungo adreiluzko horma

f.5 raseatua eta luzitua

f.6 aplakatu berria

f.7 hormigoizko betelana

f.8 inpermeabilizantea

f.9 tela asfaltikoa



Irudiak eta dokumentazio grafikoa: Metak

Gure kontakizuna Arquiak —arkitektoon aurrezki-kutzak— bere egoitza etxe-irlaren bestaldera eramateko erabakia hartu zuenean hasten da. Arkitektoen Kutxa urte askoz mantendu da eraikinak zuen etxabeko fatxada betetzen, Elkargoaren ekimenak barruan suertatzen ziren bitartean.

Toki aldaketa horrekin batera, 120 metro karratuko hutsune batek Elkargoa behin betiko kanpoaldera irekitzeko beta emango luke. Bistaratze-operazio hori gauzatzeko, Elkargoak lehiaketa ireki bat antolatu zuen. Bertara aurkeztu ziren taldeek, zulaketak, erakuslehoak, aurrekontu urriak (Elkargoak 60.000 euroko aurrekontu zorrotz bat betetzeko enkargua egin zuen), irudimena eta tankerako hitzak erabiltzera izan ziren derri-gortuak, hurrengo hamarkadari begira Elkargoaren irudi berria marrazteko abiapuntua emanez.

Talde irabazlea Metak Arkitektura Tailerra suertatu zen. Gure begirada talde gazte eta hasiberri horretan pausatu da, eta gara-

tu duten proiektuan. Elkargoko etxabearen egindako ebakuntza, kirurgia bortitz eta zakar bat izan beharrean tentu handiz sortutako ekimen bilakatu da. Horren ardatzean, zurezko altzari-erakusleho bat, erreformaren izaera (isila, argitsua, bolumen handikoa) definituz.

Aipatu dugun bezala, murruren eraispen metaforikoak barnealdean hainbat ekimen gauzatzeko lekua askatu du. Emaitza hau bada, formularen osagaiak aurrekontu urri baten mehatxupean sortutako tresna jakin batzuk izan dira. Horietatik garrantzitsuenak itxidura, arotzeria eta erakuslehoak osatzen duen pieza da. Metak-eko partaide den Kepa Iturralde arkitekto gaztearekin berba egin, eta altzari berezi horren atzean obsesio berezi batekin topatzen gaudela antzematen da. Zura kontraxafatua proiektuan sartu baino lehen, altzari, egitura eta fatxaden osagaiekin jolastu zuten, nonbait istorio bat kontatzeko behar zuten lexiko baten bilaketan.

A

A Analisisa: Bilzkaiko Arkitekto Elkargoak bere hormak eraitsi ditu

wonderland

Wonderland aldizkaria europar arkitekto gazte talde batek eraturako argitalpen interesgarria dugu; **A10** aldizkariaren le-mapean banatzen bada ere, Interneten deskargatzeko aukera dago. Metak estudioko partaide den **Maidar Uriarte** arkitektoa aldizkari horrek antolatutako lehiaketara aurkeztu zen, **“Getting Started”** monografiaren barnean. Bere pasadizoa sarituen artean egon da, eta osorik aurkezten dizuegu. Nor hobe sormen-prozesuaren gorabeherak adierazteko, egileak baino.

Lehiaketa txikia baina interesgarria zela zirudien lehen begiratuan. Saria txiki xamarra, baina esku artean enkargu handiagoak zituzten estudioen parte hartzeke gogoa (denbora preziazua inbertitzea, alegia) ez zuela piztuko pentsatu genuen.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Bizkaiko egoitza Bilboko Abandoibarra inguruan dago kokatuta. Gune hau azken urteetan zeharo eraldatu da eta, besteak beste, bertan aurkitzen da Frank Gehry-ren Guggenheim museoa.

Egoitzaren sarrera-gunea, zeinak kaleko mailatik duen atzipena, hutsik zegoen, ARQULA bankuak bulegoa tokiz aldatu zuelako atzean 120 m²-ko espazioa, erabilera gabe lagata.

Eskakizunak:

- Iragazkortasuna sortu (espalo mailako fatxada, atea kenduta, erabat opakoa zen) eta erakusleibo moduko bat eraiki, hala inguruko eremu urbano berriarekin harremana lortzeko.
- Ekitaldi ezberdinak antolatzeke erabilera anitzeko gune bat.
- 60.000 €-ko aurrekontua.

Proposamena:

- KORTINA batek banatuko lukeen espazio malgua.
- Interbentzio MINIMO.A, zoruan jarrita zegoen materiala (travertino

In Collaboration with A10

#1 wonderland
Platform for Architecture

barria) mantenduz eta horma banatzaileek utziko zituzten ildo edo zuloak morteroz beteta, interbentzio arkeologiko baten antzera. -Zur kontraxaflatuzko oholak eta beirarekin altzari baten gisako ERAKUSLEIHOA eraiki.

Ondorioa:

Eraikina bukatzean dagoen honetan, esango genuke prozesu konplikatu izan dela, aurrekontu estua zegoelako eta hortaz, lan hau gain hartuko zuten kontratista bat aurkitzea zaila izan delako. Proiektuak bidean elementu esanguratsu bat galdu du, KORTINA alegia, aurrekontuaren estutasunagatik. Hala eta guztiz ere, erakusleiboa ederki eraikia izan da.

Sari hau irabaztea autoestimu dosi baten modukoa izan da, parte hartzen genuen lehiaketa izanik eta, gainera, irabazi egin dugulako.

Elkargoa bezalako bezero batekin lan egitea interesgarria izan da oso. Badakigu arkitekto-lanetan jarduteko Elkargoan izena ematea derrigorrezkoa dela. Aurrekontuarekin oso zorrotzak izan dira, beroni euro bakar bat gehitzea onartu gabe, “Art-Povera” moduko estiloa proposatzen zutelarik. Implikazio maila extra eskatu digute gazteak garelako (eta antza, ez behar bezain lehiakorrak edo konpetenteak).

Zenbait egoera deseroso sortu dira, eta iruditzen zaigu Elkargoak berak ez lukeela horrelakorik onartuko arkitektoaren eta bezero “normal” baten arteko harreman profesionala izan balitz. Elkargoak, arkitektoa babestuko luke. Nolanahi ere oso pozik gaude proiektu honekin burrun arrazoiengatik besterik ez bada: bezeroari, kokapenari eta atzerakada ekonomikoari dagokienez, egungo garaien adibide gisa balio duela pentsatzen dugulako.



puerjapnom

Metakekin hizketaldian, erreferentzi asko agertzen dira, hala nola Lewerentzen azken obra izan zen Malmöko hilerrian kokatzen den loreak saltzeko txosna txikia. Art Povera esamoldea ere tartean izan genuen, tamalez edo zorionez; Elkargoak oparotasun-garaia iragan eta aurrean ditugun garai gazi-gezen aurreikuspen bat egin nahi izango balu bezala, aurrekontu zorrotz batekin eta biluztasun osoz aurkeztu nahi izan du egoitzako moldaketa.

Horrela, bada, bi ikuspuntu kontraesanen aurrean kausitzen gara. Alde batetik, aurretik agertzen diren erreformak eta birgaitze-lanak, travertinoa, luxua eta maila sozial jakin baten ager-garri diren keinu manierista eta postmoderno guztiak. Bestetik, luxuaren berrinterpretatze bat, ondasun materialetatik (derrigor) landa. Ikuskera honetan, zinezko luxua argitik eta espazio irekitik dator, erabilgarria eta plurala izango den espaziotik.

